



Auzotar agurgarriak:

Jakingo duzuenetz, gaur egun San Bartolomé, Joaquín Achúcarro eta Artatza kaleen arteko lorzorua urbanizatzeko lanak egiten ari dira. Aldi berean, inguruan aurreikusi diren lan guztietatik lehenengoei ekin zaie. Laster, gainera, notario aurrean zozketatu diren eta dagoeneko esleiturik dauden babes ofizialeko 30 etxebizitzetako dagozkien lanak ekingo zaie.

Urbanizatzeko lanaren planaren barruan, lehentasuna eman zaie hiru kale zein bide hauetakoei, ahalik eta azkarren funtziona dezaten berriro. Lanak egiten ari diren enpresen konpromisoak betetzeko, bide hauek uda honetarako egongo dira amaituta.

Udaren ostean, urbanizatzeko lanaren bigarren faseari ekingo zaio, jarduera-eremuaren alderdi publikoenaren inguruan. Hain zuzen ere, Kulturgunearen, plazaren, ermitaren eta parkearen inguruz hitz egiten ari naiz. Horren adierazgarria den gune hau hobetzeko lanak, besteak beste, plazaren azalera handitzea barne hartzen dute, Kulturgunea bera barne. Era berean, egungo plazaren zoladura berri egingo da, eta aurreikusitako zabalkundearenarekin berdinduko da. Gainera, behar bezala integraturik, korridore berri gisako bat jarriko da, auzoko jaietan idi-proba tradizionalak egin ahal izateko. Horrek guztiorrek Kulturgunea eta ermita erdian jartzen lagunduko du, eta oinezkoentzako gune handiagoa egingo da topagune gisa erabiltzen duten auzokideentzat. Parkeak leku berean dirau.



Gaur-gaurkoz, eta lanak gaur egungo egoerara heldu ondoren, lurpeko eta zeruko zerbitzu askoren (ura, saneamendua, gasa eta argia) beharrezko desbideratzea egin ahal izan da. Beraz, Udalak emakida administratibo erregimenean Gotzaindegia banakako orubea lagatzea erabaki zuen, bertan eliza berri bat eraiki dezan. Gotzaindegia dagokio lan hori egitea, eta epe laburrean egitea aurreikusi du. Horrek, beraz, eliza berria egindakoan, gaur egun dagoena eraistea ahalbidetuko du, eta, era berean, orubea urbanizatzeko, plaza publikoan txertatzeko.

Urbanizazio lan hauek bost milioi euroko inbertsio kostua daukate. Horietatik guztietatik, Udalak bi milioi baino gehiago jarri ditu. Gainerakoa, berriz, inguruan eraikitzen ari diren sustatzaile pribatuek emango dute.

Aldi berean, Telleriako hiri-ingurua errematatzeko lanak ari dira egiten. Kokapena dela-eta, urbanizazioak udalaz gaindiko erakunde espezializatuen babesa dauka, URA-Uraren Euskal Zerbitzuarena eta Herri Lanena, alegia, eta auzoaren hiri-garapena osatzea du helburu.

Gainera, Udaletik, Larrakoetxeko babes ofizialeko 120 etxebizitzak urbanizatu eta eraikitzeko lanak 2011. urte honetan has daitezke dihardugu lanean, bai eta San Bartolomé, Peruri, Sarriena eta Artatzagana auzoen artean dagoen lurzoruan egoiliarrentzako aparkalekua egiteko ere. Lan hauen bitartez, auzo hauen bideen eta oinezkoen lotura hobetzea aurreikusten da, mugikortasun urria daukaten pertsonentzat egokitu. Gainera, herri-ikastetxearen alboan dagoen gune publikoa handitzea ahalbidetzen du, geroago erabilera publikoko frontoi bat egiteko.

Badakit lanak gogaikarriak direla, irauten duten bitartean. Horregatik, bada, ahalik eta gehien murriztaraztea espero dugu, eta ziur gaude, behin buruturik, inguruko auzokideen bizitza-kalitatea dezente hobetuko dutela.

Agur t'ardi,

*Eneko Arruebarrena Elizondo*  
Alkatea